

**GAIA: ZUMAIAKO UDALA. ARKITEKTO TEKNIKO BAT LANBIDEN ARGITARATUTAKO LAN-ESKAINZAREN BITARTEZ KONTRATATZEKO PROZESUA.**

LAN-ESKAINZAZ LANBIDEN ARGITARATUKO DA. LAN-ESKAINZAREN DOKUMENTUAN JASOTZEN DEN INFORMAZIOARI ONDORENGO INFORMAZIOA GEHITZEN ZAIO:

**LAN-ESKAINZAREN ERANSKINA:**

**1- LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:**

- **IZENA: ARKITEKTO TEKNIKO**
- **LANALDIA. %100**
- **KONTRATUAREN IRAUPENA: PRINTZIPIOZ IRAILAREN 30 ARTE.** Une horretan kontratuaren jarraipenaren beharra eta baldintzak aztertuko dira.
- **ORDUTEGIA: Ezinbesteko ordutegia: 9:30-14:00. Udaleko bulego orokorretako ordutegiaren arabera, eguneko 7,5/7 orduak osatzeko malgutasuna.**
- **ORDAINSARIA: Hileko 2988,96€ gordinak.** Kasua bada, antzintasuna aparte.

**2- LANPOSTUAREN ARDURA NAGUSIAK:**

**LANPOSTUAREN OINARRIZKO FUNTZIOA:**

*Obra publikoak eta sustatzaile pribatuek egikaritutakoak zuzendu, kudeatu eta kontrolatzea. Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak zuzendu, kudeatu eta kontrolatzea, hala bertako langileekin nola azpikontrataturako enpresekin. Bide publikoaren eta eraikin publikoen mantentze-lanak kudeatzea.*

**ZEREGIN ESPEZIFIKOAK**

- Udal brigadaren eginbeharrak zehaztu, zuzendu eta gainbegiratu.
- Udalak bide, eraikin eta azpiegitura publikoetan sustatzen dituen obra txikiak exekutatzeke dokumentazioa prestatu, eskaintzak jaso, esleipenak egin, obrak zuzendu, gainbegiratu eta kontrol ekonomikoa eraman. Egindako lanen azken dokumentazioa sortu GISa eguneratzeko.

- Udal bide, eraikin eta azpiegitura publikoetan zerbitzuak, obrak eta horniketak kontratatzeke pleguak idatzi, eta esleipenak bideratu edo lan horren ardura hartzen duen teknikariarekin elkarlanean aritu (prebentzio eta itzaltze elementuena, ate automatikoena).
- Obra txikien baimenak (eraikin pribatuetan nahiz bide publikoetan) aztertu, informatu, kontrolatu eta jarraipena egin.
- Herritarren harretarako lanak egitea, kexen harrera eginez eta obra eta zerbitzuei lotutako gaietan orientabidea eman.
- Udaleko beste sailetan eta kirol patronatoan obra txiki eta mantenu lanen exekuzioa, zerbitzu kontratazioa eta kudeaketa, eta antzeko lanetan aholkularitza eman.
- Eraikinen Ikuskapen teknikoaren txostenen tramitazioa osoa. Euskoregitearen erregistratu eta dagokion prozedura egin. Epean aurkezten ez diren eraikinei errekerimenduak egin.
- Hirigintza Sailari laguntza teknikoa eman, planoen ,marrazketan, aurrekontuak egin,e.a.
- TAO ren ezarpenari jarraipena egin eta kontratuari betetze maila konprobatu.
- Era berean, agintzen zaizkion zereginak egitea, lanpostua lortzeko eta betetzeko eskatzen den kalifikazioarekin bat datozenak.

### **3- HAUTAGAIEK BETE BEHAR DITUZTEN EZINBESTEKO BALDINTZAK:**

Eskatzen den ikasketa maila :

**Arkitekto tekniko edo indarrean dagoen legerian pareko den tituluren bat edukitzea.**

Eskatzen den euskara maila:

- **3. HE** edo baliokidea den titularen jabe izatea.

#### 4- BALORATUKO DIREN MERITUAK:

Hautaketa prozesua arautuko duten irizpideei dagokionez, prozesuari azkartasuna emateko, **kontratazioa lehiaketa bidez egitea proposatzen da** eta ondoren azaltzen diren merituak baloratuko dira:

##### 1- Lan-esperientzia:

- a) Administrazio publikoan, antzeko funtzio eta ardurak betetzen duen esperientzia: 0,5 puntu hilabeteko (**ez da zatiki txikiagorik aintzat hartuko**).

Atal honetan **gehienez ere 6 puntu lortu ahal izango dira**.

- b) Enpresa pribatuan, Administrazio Publikoari hirigintza-gaietako aholkularitza eta kudeaketa-zerbitzuak ematen duen esperientzia: 0,30 puntu hilabeteko (**ez da zatiki txikiagorik aintzat hartuko**); eta eraikin berrien obra nagusiak eta/edo eraistek zuzentzen duen esperientzia: 0,1 puntu zuzentze-lan bakoitzeko.

Atal honetan **gehienez ere 4 puntu lortu ahal izango dira**.

Lanaldi partzialetan emandako zerbitzuak modu proportzionalan baloratuko dira.

##### 2- Prestakuntza-ikastaroak:

- Deitutako lanpostuaren funtzioekin zuzeneko lotura duten prestakuntza-ikastaroak honela baloratuko dira, eta, **gehienez ere, 2,5 puntu lortu ahal izango dira**:

- 20 eta 50 ordu arteko ikastaroak: 0,50 puntu.
- 51 eta 75 ordu arteko ikastaroak: 1,00 puntu.
- 75 ordu baino gehiagoko ikastaroak: 1,50 puntu.

Atal honetan, epaimahaiak zentro ofizialetan egindako edo homologatutako ikastaroak soilik hartuko ditu kontuan: INAP, IVAP, Eskola Profesionalak, Eskola Ofizialak eta Unibertsitateak.

20 orduz azpiko ikastaroak eta ordu-kopurua zehaztu gabe dutenak ez dira kontuan hartuko.

##### Oharrak:

1/ Lanbiden lan-eskaintza argitaratzen den egunaren aurreko egunerarte izango dira kontuan hartuko diren merituak.

2/ Hautagaiek, kontuan hartzea nahi dituzten merituen datuak Lanbiden eguneratu beharko dituzte, horiek hartuko baitira kontuan.

3/ Meritu horiek, ondoren azaltzen den moduan egiaztatatu beharko dira:

**Lan-esperientzia ziurtatzeko** ezinbestekoa izango da erakunde pribatuaren kasuan kontratu laboralaren fotokopia aurkeztea eta erakunde publikoan kasuan berriz, erakundeak egindako ziurtagiria aurkeztea. Bi kasuetan, esperientzia baloratu ahal izateko, bete den lanpostua eta kontratuaren edo izendapenaren iraupena modu egokian jaso beharko dira. Hortaz gain, baita, Gizarte Segurantzak emandako bizitza laboral eguneratua aurkeztu beharko da.

Zumaiako Udalean egindako lanak alegatu egin beharko dira, baina ez egiaztatu. Administrazio honek ofizioz zenbatuko ditu lan horiek. Gainerako administrazio publikoetan lanean egindako denbora administrazio haietako bakoitzak hori ziurtatzeko duen ziurtagiri-ereduaren bidez egiaztatu beharko da.

Zenbatzeko orduan, lana edo beharra lanaldi arrunteko jardunbidean egin bada, formula hauxe erabiliko da: laneko urte osotzat 360 egunekoa hartzea eta laneko hil osotzat 30 egunekoa. Lan-ordutegi partzialeko edo lan-ordutegi murriztuko dedikazioen kasuetan, zenbatze hori lanean edo beharrean benetan eskaini den dedikazio-denboraren proportzioan egingo da.

**Autonomo gisa egindako lanak ziurtatzeko**, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ziurtagiria, lizentzi fiskalaren kopia, autonomoen erregimenean egindako kotizazio egiaztagiria eta egindako lan-profesionalen ziurtagiriak (**Elkargoak egindako ziurtagiriak**) aurkeztu beharko dira.

**Prestakuntzari dagokionez**, ikastaro zein tituluak baloratu ahal izateko, erakunde ofizialek edo haiek homologatutakoek emandakoak izan beharko dira. Ikastaroen kasuan, aurkeztutako ziurtagiriak, bakoitzaren iraupena jaso beharko du. Ordu kopurua jasotzen ez badu, ikastaroa ez da kontuan hartuko.

4/ Merituak toki hauetako batean aurkeztu behar dira:

— Zumaiako Udaleko erregistroan (Foruen enparantza z.g., 20750, Zumaia).  
Ordutegia: 7:45-14:30.

— Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4. artikulua aipatzen duen edozein tokitan, eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste edozein autonomia erkidegotako erregistroetan, Estatuko Administrazioaren erregistroetan, probintzietako diputazioen, kabildeen eta uharteko kontseiluen erregistroetan, eta, halaber, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 121. artikuluan aipatzen dituen udalerrietako udaletxeetan.

Eskabidea orria posta bulego batean aurkeztekotan, gutun azal ireki batean eraman behar da: Correoseko enplegatutak data eta zigilua jartzeko, aurkezteko epearen barruan. Horrela bakarrik ulertuko da eskabidea posta bulegoan utzi zen egunean izan duela sarrera Zumaiako Udaleko Erregistroan.

— Zumaiako Udalaren [www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus) egoitza elektronikoaren erregistro elektronikoaren bidez.

— Aplikagarria den araudiak dioen beste edozein eratan.

### **3- Elkarrizketa. Praktikoa. Gehienez ere 2,5 puntu lortu ahal izango dira.**

Merituen balorazioa egin ondoren, lanpostuaren ardurekin zerikusia duen elkarrizketa praktikoa egingo da. Elkarrizketa, ondoren zehazten diren gaien inguruan izango da:

- 1. Puntuan zehazten diren ZEREGIN ESPEZIFIKOAK**
- 2. Hautagaiaren lan esperientzia**

**Oharra:** Hautagaien kopurua altua izanez gero, epaimahaiak erabaki dezake elkarrizketa, merituen puntuazio altuena lortu duten hautagai multzo bati soilik egitea.

### **5- KALIFIKAZIO-EPAIMAHAIA:**

Merituak eta kasua bada, elkarrizketa, baloratuko dituen epaimahai kalifikatzailea:

- Zumaiako Udaleko Hirigintza, ingurumen eta obra sailaren arduraduna, epaimahaiburu gisa arituko dena.
- Zumaiako Udaleko arkitekto teknikoa.
- Giza-baliabideen eta administrazio teknikaria, idazkari lanetan arituko dena.